

Lehen Mailako Arretak ez du osasun-arretarako sarbidean desberdintasunik sortzen Euskadin.

Maite Morteruel eta Unai Martín



Gizarte eta ekonomiaren aldetik egoera txarrean dauden pertsonak, osasun okerragoa dutenek, neurri apur bat handiagoan erabiltzen dituzte Lehen Mailako Arretako medikuntza- eta erizaintza-zerbitzuak, pertsona mesedetuenean aldean, hein batean osasun txarragoa dutelako.


Cita sugerida: MORTERUEL, M. Y MARTIN, U. (2020). *Lehen Mailako Arretak ez du osasun-arretarako sarbidean desberdintasunik sortzen Euskadin*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/osasun-sistema/>



Euskal herritarrek Lehen Mailako Arretako zerbitzuetara duten sarbidea deskribatzeko, inkesta egin aurreko azken urtean autotxosten bidez aztertu da medikuntzako eta erizaintzako kontsultetara den sarbidea, gizarte-maila eta hezkuntza-maila kontuan hartuta eta gizon eta emakumeen artean bananduta.


Lehenik eta behin, Lehen Mailako Arretako medikuntza-zerbitzuetarako sarbideari dagokionez, emakumeak gehiago joaten dira baliabide horretara gizonak baino (%79 eta %71,2, hurrenez hurren). Gizarte-klasearen arabera aztertzen badugu baliabide horretarako aukera, 1. grafikoan ikusten den bezala, gizarte-klase behartsuenetako (III, IV eta V) pertsonak joaten dira gehien. Gizonen artean, alde handiena I eta II klaseen artean ikus daiteke III, IV eta V klaseetara, eta emakumeen artean, berriz, I, II, III eta IV klaseen artean V klasearekiko, nolabaiteko gradientearekin, gainera; sarbidea, aldiz, oso antzekoa da I eta IV klaseen artean. Alde txiki horien arrazoa da talde sozioekonomiko ahulenetako biztanleek osasun okerragoa dutela, eta beraz, osasun-arreta erabiltzeko premia handiagoa izan ohi dute (ikus EAEko biztanleriaren osasun-egoeran dauden desberdintasunei buruzko emaitzak webgune honen hurrengo atalean: <https://www.oseki.eus/wp-content/uploads/2019/12/6cas.pdf>)

1. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN LEHEN MAILAKO ARRETAKO MEDIKUNTZAKO KONTSULTARAKO, KLASE SOZIALAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKADI 2018



Ikasketa mailaren arabera, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak dira portzentaje txikiagoan joaten direnak Lehen Mailako Arretako medikuntzako kontsultetara, eta, gizonen kasuan, gradiente bat hautematen da sarbidean; beraz, ikasketa maila zenbat eta baxuagoa izan, altuagoa da azken urtean kontsulta-mota horretara joan diren gizonen portzentajea. Emakumeen artean, alta, gradiente hori ez da hain argia, ikasketarik ez dutenak edo lehen mailako ikasketak dituztenak unibertsitate-ikasketak dituztenen antzera joaten baitira.


2. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN LEHEN MAILAKO ARRETAKO MEDIKUNTZAKO KONTSULTARAKO, HEZKUNTZA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKADI 2018



ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN 0INARRITUTA

Erizaintzako kontsultetara joateari dagokionez, portzentajezko ia 3 puntu handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (%54 gizonekoetan, eta %56,6 emakumezkoetan). Klase sozialari erreparatzen badiogu, 3. grafikoan ikus daitekeenez, klase sozial behartsuenetako (III, IV eta V) gizonen ehuneko handiagoa joaten da kontsulta horietara klase sozial mesedetuenetako (I eta II) gizonen aldea. Emakumeen artean ere joera berbera ageri da, eta klase baxuenekoak dira zerbitzu hori portzentaje handiagoan erabiltzen dutenak.

3. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN LEHEN MAILAKO ARRETAKO ERIZAINZAKO KONTSULTA ERABILTZEKO, KLASE SOZIALAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKADI 2018




I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN 0INARRITUTA

Ikasketa mailaren arabera, berriz, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak dira erizaintzako kontsultetara gutxien joaten direnak, eta, ondoren, ikasketarik ez dutenak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, 4. grafikoan ikusi daitekeenez. Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak dira erizaintzako kontsultetara gehien joaten direnak, eta horien atzetik daude goi-mailako bigarren mailako ikasketak dituztenak.

4. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN LEHEN MAILAKO ARRETA ERIZAINZAKO KONTSULTA ERABILTZEKO, HEZKUNTZA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKADI 2018



ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN 01NARRITUA

Konklusio modura, gizarte-klase behartsuenetako pertsonak eta hezkuntza maila apalagoko pertsonak zertxobait gehiago joaten dira Lehen Mailako Arretako zerbitzuetara talde mesedetuenetako pertsonen aldean. Hala eta guztiz ere, bada hobekuntzarako tarterik sarbidean ekitatearen aldetik, bai ikasketa maila txikiagoa duten pertsonentzako erizaintzako kontsulten kasuan, bai hezkuntza maila txikiagoa duten emakumeentzako medikuntzako kontsulten kasuan.



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)